

90. urteurrena

BEOLA OLAZIREGI, Ainhoa
Donostiako Udalaren euskara zinegotzia
Concejala de euskera del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián

Egun on euskaltzainoi,
agintariori,
euskalgintzako hedabideetako ordezkari
eta hemen zaudeten guztioi.

Hiru minutuz hitz egin behar dut, beraz, idatziz ekarri dut nahiz eta bide-
lagun urtetan izan ditudan asko hementxe gaur aurrean ditudan.

Plazerra da Donostiako Udalarentzat Euskaltzaindiaren 90. urteurre-
nean hemen zuekin batera izatea, gaur amaitzen baitituzue Donostian
2008an ekin zenioten ospakizun saioei. Iruñean egin zenuten XVI. Nazioar-
teko Biltzarrekin eta Euskal Herrian barna ostean. Eta bai ondo amaitu
ere jaio berri den *Erlea* aldizkariarekin, izan ere kulturgintzak oro har eta
euskaraz sortutakoak bereziki, eskertu duen kultur aldizkaria baita. Guztion
parte hartze aktiboa behar baitugu euskaraz sortutako kultura dinamikoa
anitzak eta horretarikoak sortzen eta eraikitzen joateko.

Horretan erreferentea izan da Euskaltzaindia urte hauetan guztietan,
hainbatetan nahasmena sortu digute, baina ezinbestekoak diren arauak de-
finituz, corpusa landuz, Hiztegi Batua izan den lan ikaragarria gorpuztuz,
Iker bilduman, Jagonet, *Plazaberri* agerkari digitalaren bitartez, teknologia
berrietara egokitu eta erabiltzaileoi gauzak erraztu baitizkiguzue. Eta zer
esango dut ba, euskal onomastika datutegiaz, lan honek eman baitigu auke-
ra, besteak beste, Irutxulotik Donostiara bidean, Donostiara iristeko.



Niri gainera bereziki hunkigarria egiten zait gaur hemen izatea, Hiztegi Batua osatzeko lanetan aritu bainintzen hiru urtez eta jakin baitakit, zer nolakoa izan den Euskaltzaindiak egindako lana. Beraz 90 urte barru gaur hemen gaudenak urteurrena ospatzeko adituko ez garen arren, urte hauetan eta datozenetan, Euskaltzaindiak egingo duen lanari esker, beste ospakizun sakonago baterako aukera emango duela dudarik ez dudanez, zorionak besterik ematea ez zait egokitzen.

Mila esker.